

ITSAS PORTU BATEAN (+6)

Gabriel Janer Manila

Irudiak: Eider Eibar

Erein (Bromera), Donostia, 2005

Txokolatea bezain

1. Irakurri berri dituzun bi haur ipuinek orain bi urte idatzitako *Herodes* izeneko artikulua ekarri dizute gogora. Hartan zenioen: «Soil-soilik *petit comité*n eta alkoholak lagundurik —helduentzako idazleek uste dute haurrentzako idazleek ez dutela alkoholik edaten eta jaten dituzten gozokien eztkeriaz betetzen dituztela beren liburuak—, helduentzako idazleek esaten dute HGL gainbaloratua dagoela, eta “Susmopeko literatura” deituko diote, edo “Printze —eta printzesa, gaineratuko du baten batek burlaizean— txikien literatura”. “Herodesek bezala jokatu bagenu, hutsalkeria eta azalkeria koloretsu hura guztia ezpatan pasako bagenu, ez genuke haurrentzako idazle mengel eta xalorik izango”, amaituko dute». Eta, bi urteren buruan, ondorioztatu behar duzu, zorigaitzez, helduentzako idazleek oraindik ere zenbaitetan arrazoia dutela, eta horrela nekez konbentzitu dituzuela.

2. Oraindik ere bitxia zaizu: deitu dizu editore txit goren batek eta esan dizu ea epe labur batean gazteentzako nobelatxo bat idatziko diozun (bai, “nobelatxo”; eta bai, “diozun”), eta zuk galdegin diozu ea zenbat orrialdetako, eta hark erantzun dizu, “Bah, 30-40 orrialde besterik ez...”; orduan zuk esan diozu une honetan hain zuzen ere gazteak zaizkizula publikorik helezinena, konplexuena, eskuraezinena, eta, “nobelatxo” izanagatik, ezin duzula halakorik idatzi, are gutxiago “epe labur batean”. Beste batean deitu dizu beste editore txit goren batek eta esan dizu ea hereneguneko haur txiki-txikientzako kontutxo batzuk idatziko ote dizkiozun (bai, “hereneguneko” esan dizu —halako txantxa zaharkituak maite dituzte editore txit gorenek—; bai, “kontutxo batzuk” esan dizu, zeren hain laburrak izanik, letra maiuskulaz eta minuskulaz ekarriko dutenez, zuk batzuk-batzuk idatzi baititzakezu, eta gero haiek arduratuko dira egokiena aukeratzeaz; eta bai, “dizkiozun”); orduan zuk esan diozu, saiatu, saiatuko zarela, eta ea ipuin bat idaztea lortzen duzun hurrengo asteetarako. Egia esan, jokamolde literario honekin, ezin “kontutxo” onegirik espero, baina denbora aurrera joan da, zuk —zeure ustetan— idatzi duzu ipuin bat, eta ikusi duzu bilduma eta ahoa bete hortz eta begiak arranpalo geratu zara eta susmopeko literaturaz oroitu zara... Hain testu

laburrak izanik (bai, “testu” idatzi duzu, ez literatur lan edo ipuin), irakurri duzun ipuin bat kopiautuko duzu adibide gisara:

2.1. Kontatu behar dizuedan historia hau udako egun batean gertatu zen, oraindik aspaldi ez dela, itsas portutxo batean. Arratsaldea argi zegoen: zerua urdin-urdin zegoen, arrain baten sabela bezala, eta ura (*urak behar du, ezta?*) ispilu batek bezala egiten zuen distira. Arratsaldero, Berta eta Mikel etxetik atera eta kaleetan galtzen ziren, itsasora iristen ziren arte. Han Jaime, Anparo, Dabid... topatzen zituzten. Mendi maldako pinudietara joan eta harkaitzetan lasterka ibiltzen ziren, udako pozak hazi eragiten baitzien (*eh?*), gorantz. Bertak esaten zuen: “Egunen batean ilargia ukituko dut: eskua luzatu eta sudur punta behatzaz ukituko diot”. Eta baliteke behin baino gehiagotan lortu izana ere. Ilargia uretan noiz agertuko zain egoten ziren. Eta besoa luzatu, eta oin puntetan jartzen diren (*ziren, ezta?*), ilargia behatz puntara etortzen zitzairen arte. Behin baino gehiagotan nahi izan zuten eskuetan itsas karakola bat edukitzea. Esana baitzieten: “Hutsik dagoenean, itsasoko adarrak jendeari gauzak jakinarazteko balio du, ezbeharrak izan edo jaia izan. Aski da muturrean zulo bat egin eta putz egitea. Kantuan hasten da... Uuuu...!”. Esan zieten, karakola belarrian jarri eta adi jartzen bazara, olatuen hotsa entzuten omen duzu. Eta itsasoko hotsarekin batera, historia guztiak kontatzen dakien ahots bat ere bai: piraten historia zaharrak, itsasoan galdutako ontzi baten abentura, hanken ordeztan arrain isatsa zeukan gizon baten historia. Arratsalde hartan inoiz bururatu ere egin ez zitzaiekeen (*jesus!*) gauza bat gertatu zitzaien. Horretan, portu bazter batean ur gainean zegoen gauza bitxi bat ikusi zuten. “Itsasoko karakola bat da”, esan zuen Mikelek. “Ez da karakola. Hori...”. Ez zer (*sic*) erraza zer zen jakiten. “Karakola da”. “Ez, ez da, egur puska bat da”. Mikelek esan zuen: “Zapata bat da. Begira: zapata zahar bat da”. Dabidek erantzun zuen: “Bai, zapata bat da. Eta aspalditik dago itsasoan, magurio eta muskuilu pila bat du erantsita eta”. Anparo eta Berta kanabera baten bila joan ziren (*Laburbilduz, zapata eskuratu zuten, eta honela amaitzen da*): Zapata baten eskuetatik bestearenetara aldatzen zen. Eta aldiko historia berri bat kontatzen zuen, inoiz entzun ez zuten ahots bat. “Ezkutuan altxor bat zeraman itsasontzi baten historia da”. “Itsasoko ur gainean oinutsik zebilen neska baten historia da”. “Historia hau...”. Munduko historia guztiak zapata baten barren ilunean kabitzen ziren.

Testu hauek indar eta gatzgabeak dira, ez dira benetakoak, nabari da ez direla barnetik irten. Eskerrak, sikiera, Eider Eibar ilustrazio ederrekin zerbait itxurosoago eskaintzen duten (bilduma hauetako beste testu batzuen akatsak, batzuetan, antologikoak dira). Eta zuk hain zuzen itsasoko ur gainean oinutsik zebilen neskaren historia nahi duzu, eta ez oso magikoa eta oso liluragarria zen zapata baten ez-dakit-zer hori. Eskerrak, eta gaitz

erdi, halako bildumetan benetako ipuinak ere topatzen ahal diren (tartean badira euskal idazleenak ere).

3. Txokolatezaleok badakizue txokolate antzeko hainbat jaki saltzen dela, azukre huts direnak, eta benetako txokolateak kakao asko behar duela, eta kasik garratza ere badela. Baina oraindik ere, zorigaitzez, digestio txarreko eta txantxar eragile diren hainbat testu argitaratzen dira —idazlearen arduragabekeriagatik eta editorearen eskuzabaltasunagatik, HGLren kaltetan inondik ere.

Patxi Zubizarreta